

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 774/2022 Foru Agindua, abenduaren 23koa. Onespena ematea arautzeari TicketBAI betebeharra duten zergadunentzako informazioaren berehalako horniduraren berezitasunak eta salbuespenezko kasu jakin batzuetan TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk

Tresna teknologikoak erabiltzeko betebeharra ezarri zuen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauak TicketBAI betebeharra betetzera behartzen ditu hainbat zergadun; hain zuzen ere, sozietateen gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak eta establezimendu iraunkor baten bidez errentak eskuratzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak.

Ondoren, TicketBAIren betebeharra garatzen duen erregelamendua onesten duen urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuak betebehara horren araubidea osatzen duen araudi garapena gauzatu zuen.

Halaber, zenbait erregelamendu aldatu zituen. Zehazki, bosgarren xedapen osagarriak aldatu zuen Balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamendua onesten duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 62. artikuluko 6. apartatua dagozkien erregistro liburuaren edukia balio erantsiaren gaineko zergaren fakturazio erregistroen hornidura elektronikoaren bitartez egokitzeko, hau da, Berehalako Informazio Horniduran (aurrerantzean, BIH) oinarritutako sistemaren bidez. Modu horretan ezarri zen TicketBAI betebehara betetzeko, zerga administrazioari bidalitako informazioa erabiliko dela BIHko bidalitako fakturen libururako, albo batera utzi gabe betebehara hori betetzeko bidalitako TicketBAI fitxategiko informazio osagarria hornitu behar denean, eman egin beharko dela dagokion kasuan beharrezkoa den informazio osagarria.

Hala, foru agindu honen helburua da aipatutako informazio osagarria hornitzeko beharrezko araudi zehaztapenak eta zehaztapen teknikoak onestea. Horretarako, aldatu egin zen abenduaren 26ko 703/2017 Foru Agindua, Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko arauak eta zehaztapen teknikoak arautzen dituena.

Horri lotuta aipatu behar da bi bitarteko gaitu direla informazio osagarria bidaltzeko. Biak ere elkarren artean osagarriak izango dira eta bata edo bestea erabiltzeko aukera egongo da: alde batetik, zergadunentzat Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri egongo den web inprimakia, eta beste alde batetik osatu fitxategia bidaltzeko aukera egongo da osatu zerbitzuaren betekizunak, prozedura eta foru agindu honetan arautu diren zehaztapen teknikoak eta funtzionalak betetzeko.

Bestalde, aurretik aipatu dugun TicketBAIren betebehara garatzen duen erregelamendua, era berean, dio ez ohiko inguruabar jakin batzuetan TicketBAI fitxategiak bidaltzeko modu bereziak arautzeko Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak Foru Agindua bidez onetsi beharko dituela.

Zehazki, erregelamendu horren 14. artikuluko 4. apartatua xedatzen du estaldurarik eza eta ezin operadoreen bidez sarera sartzea ezinezkoa dela egiaztatzen bada, dela edozein teknologiatako banda zabaleko operadoreen bidez, dela sare mugikorreko operadoreen bidez, Ogasun Zuzendaritzak baimena eman ahalko duela TicketBAI fitxategi guztiak Zerga Administrazioari geroratuta bidaltzeko, zergadunak hala eskatu ondoren.

Gainera, erregelamendu beraren 15. artikulua ezartzen du TicketBAIren betebeharra betetzen duenean eragiketaren norbanako edo erakunde hartzaileak, TicketBAI fitxategiak bidali beharko dizkiola dagokion zerga administrazioak norbanako edo erakunde igorleari, eta bidalketa hori norbanako edo erakunde igorleak gauzatu ahalko duela faktura onetsi bezain pronto.

Gauzak horrela, foru agindu honek aldatu egiten du baita ere 802/2021 Foru Agindua, abenduaren 27koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen, modu horretan arautzeko estaldurarik eta sarea erabiltzeko aukerarik ez dagoenean TicketBAI fitxategien bidalketa geroratu egiteko lekua, modua eta epea eta TicketBAI fitxategien bidalketa berezia egiteko modua TicketBAIren betebeharra eragiketaren norbanako edo erakunde hartzaileak betetzen duenean.

Ikusirik gaiari buruz zerga araudiaren zerbitzuak emandako txostena eta aholku batzordeak emandakoa, zeinean lege antolamenduari egokitutzat jotzen baita foru agindua.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Aldatzea balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezteko arauak eta zehaztapen teknikoak ezartzen dituen abenduaren 26ko 703/2017 Foru Agindua

Lehenengoa. 9. artikulua gehitu zaio abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduari, Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko arauak eta zehaztapen teknikoak arautzen dituenari.

9. artikulua. Baldintzen zehaztapenak eta TicketBAI betebeharra betez bidalitako informazioari informazio gehigarria hornitzeko prozedura

1. Artikulu horretan aipatutako informazio osagarriaren barne egongo dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan erregistro liburuak eramateko betebeharra betez igorritako fakturen erregistro liburuan hornitu behar direnak, eta TicketBAIren betebeharra betez TicketBAIren fitxategietan sartu behar ez direnak.

2. Informazio osagarri hori emateko beharrezkoa izango da aurretiaz TicketBAIren betebeharra betetzea.

3. Artikulu honetan aipatzen den informazio osagarriak honako eremuak barne hartzen ditu hala dagokionean:

- a) Kanpoko erreferentzia.
- b) BEZaren menpe dauden higiezin eskualdaketen ondorioz jasotako zenbatekoa.
- c) Legezko ordezkariaren IFZ.
- d) Kontrako alderdiaren ordezkariaren IFZ.
- e) Fakturazio erabakiaren erregistro zenbakia.
- f) Ordezko erakundea.
- g) Kupoia.

h) Informazioa bat badator atxikipenari lotu gabeko negozio lokalaren alokairuko higiezinaren datuekin, higiezinaren egoerari eta katastro erreferentziari buruzko informazioa emango da.

4. 1. apartatuan aipatutako informazio osagarria honako bitartekoen bidez bidali ahalko da:

a) Hori egiteko Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zergadunaren eskura jartzen den web inprimakia erabiliko da.

b) XML formatuan mezuak trukatzeko oinarritutako web zerbitzuak erabilia, web orriko betekizunen, prozeduraren eta artikulua hau arautzen duten zehaztapen teknikoaren eta funtzionalen arabera. Mezu bakoitzak informazio osagarriaren fitxategi bakarra izango du eta modu indibidualan bidaliko da eta Osatu fitxategia izena izango du.

5. Informazio osagarria bidaltzen den une berean Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak erantzun mezua bidaliko du web zerbitzuen bitartez; mezuan zehaztuko da informazioa onartu edo ukatu den eta zergatiak azalduko dira.

Baliozkotzeak bakarrik hartzekoak izango dira eta modu sinkronoan egingo dira.

Informazio osagarriak hartzeko baliozkotzeren bat gairatzen ez bada eta ukatzen bada, zuzenketak egin eta berriro bidali beharko da. Ukatutako informazio osagarria ez da erregistratuko Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

6. Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan argitaratuko dira OSATU fitxategiek gairatutako behar dituzten baliozkotzeak eta horietako bakoitzari dagozkion akatsen sailkapena eta akats horiei lotutako kodeak eta azalpenak, bai eta fitxategiak jasotzearekin zerikusia duten gainerako oharrek ere.

7. Rest zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten softwareak ziurtagiri elektroniko baten bidez egiaztatutako beharko dira bezeroaren atalean, hala xedatzen baitu TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduen TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenen 4.1 puntuak.

Hala eta guztiz ere, gailuaren ziurtagiriaren kasuan, eta gailuak bere izenean mezuak bidaltzeko, beharrezkoa da 4.1 puntuan aipatutako baimena informazioa bidali aurrekoa izatea.

8. Artikulu honetan aipatzen diren informazio osagarria bidaltzeko mezu informatikoek Foru Agindu honen II. eranskinean agertzen diren edukia zehazten den erregistro eremuieko gaitutako zaizkie, eta horien egitura, formatua eta diseinua Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jasotakoak izango dira.”

Bigarrena. II. eranskina eta III. eranskina gehitu zaizkio abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduari, Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko arauak eta zehaztapen teknikoak arautzen dituenari, eta foru agindu honen eranskin gisa sartu dira.

2. artikulua. Aldatzea TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen abenduaren 27ko 802/2021 Foru Agindua

Ondoren adierazitako aldaketak egiten dira TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduan:

Bat. 1. artikuluarik azken paragrafoa bat gehitzen zaio; hona hemen haren edukia:

“Azkenik, Foru Agindu honek erregelamendu horretan aurreikusitako TicketBAI fitxategiak bidaltzeko bestelako modu bereziak garatzen ditu baita ere.”

Bi. Hirugarren atala gehitu da. Hauxe da edukia:

Hirugarren atala. TicketBAI fitxategiak bidaltzeko modu bereziak.

11. artikulua. TicketBAI fitxategiak gerora bidaltzea, baldin eta egiaztatzen bada estaldura falta zela eta sarera sartzea ezinezkoa zela

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da Ogasun Zuzendaritzak aurretiaz zergadunak hala eskatuta baimena eman duenean TicketBAI fitxategiak geroratuta bidaltzeko, baldin eta estaldurarik ez bada egon eta sarera sartzea ezinezkoa izan bada, TicketBAIren betebeharra garatzen duen erregelamenduaren 14.4 artikuluan aipatutakoaren arabera. Erregelamendu hori urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Geroratutako bidalketa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik egingo da TicketBAI fitxategiak inportatuta.

Hilabete natural bakoitzeko TicketBAI fitxategien geroratutako bidalketa hurrengo hilabeteko hilaren 15aren aurretik egin beharko da.

Aurrekoa gorabehera, uztaileko TicketBAI fitxategien geroratutako bidalketa irailaren 15aren aurretik egin beharko da.

12. artikulua. TicketBAI fitxategien bidalketako inguruabar berezia, TicketBAIren betebeharra eragiketaren norbanako edo erakunde hartzaileak betetzen duenean

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da TicketBAIren betebeharra eragiketaren norbanako edo erakunde hartzaileak betetzen duenean, eta TicketBAI fitxategiak norbanako edo erakunde igorleak bidaltzen dituenean faktura onetsi bezain laster; inguruabar hori jasota dago TicketBAIren betebeharra garatzen duen erregelamenduaren 15.2 artikulua b) hizkian, eta erregelamendu hori urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Bidalketa hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik egingo da TicketBAI fitxategiak inportatuta.

Balio erantsiaren gaineko apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 62. artikuluko 6. apartatua aipatutako norbanako edo erakunde igorleen kasuan, TicketBAI fitxategiak bidali beharko dira faktura igorri eta gehienez ere 8 egun naturaleko epean.

Hiru. Aldatu egin da "TicketBAI alta fitxategiko egitura eta baliozkotzeak" izeneko I. eranskina, eta bere idazketa berria Foru Agindu honi atxiki zaio.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 23a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA



I. ERANSKINA: TICKETBAI ALTAKO FITXATEGIAREN EGITURA ETA BALIOZKOTZEAK.
 I. ALTA MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK.

Azalpena:	Gorria = Gorria = Nahiaezko eremuak
	Beltza = Beltza = Aukerako eremuak
	Eremu bateraezina
	Nahiaezkoa Araban


Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Goburua	TBAI bertsioaren ident.								Alfanumerikoa(6)	Erabilitako TicketBAI fitxategiaren egituraren bertsioaren identifikazioa.	L0
	Jaukitzailea	IFZ							IFZ formatua(9)	Jaukitzailearen IFZ.	
Kargapean	Hartzaleak	Izen-abizenak edo sozietate izena							Alfanumerikoa(120)	Jaukitzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izen edo deitura osoa.	
			IFZ						IFZ formatua(9)	Hartzalearen IFZ.	(ISO 3166-1 Alpha-2 codes) L1
			Herrialdearen kodea						Alfanumerikoa(2)	Hartzalearekin lotulako herrialdearen kodea.	L2
			Bestelako ident.						Alfanumerikoa(2)	Egoltza daqoen herrialdeko identifikazioa ezartzeko gakoa.	
			Hartzalearen ident. (1 - 100)						Alfanumerikoa(20)	Egoltza daqoen herrialdeko identifikazio zenbakia.	
			Izen-abizenak edo sozietate izena						Alfanumerikoa(120)	Hartzalearen izen-abizenak edo sozietatearen izen edo deitura osoa.	
			Posta kodea						Alfanumerikoa(20)	Hartzalearen posta kodea.	
			Helbidea						Alfanumerikoa(250)	Hartzalearen posta helbidea.	
		Zenbait hartzale							Alfanumerikoa(1)	Fakturak zenbait hartzale dituzenez zehazten duen identifikazioa. Eremua hutsik uzten bada, balioa «N» dela pentsatuko da.	L3
		Hirugarren batek edo hartzaleak hartzaleak egindako faktura							Alfanumerikoa(1)	Faktura hirugarren batek edo hartzaleak egin duenez zehazten duen identifikazioa. Eremua hutsik uzten bada, balioa «N» dela pentsatuko da.	L4




Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Faktura	Fakturaren saila								Alfanumerikoa(20)	Faktura identifikatzen duen saila. Komeni da: Karaktere hauek erabiltzea: 0123456789ABCDEFHJKLMPQRSTUVWXYZ. Ez erabiltzea I, N, O eta W letrak, errazago irakurri ahal izateko. Letra xeheak ez erabiltzea. Karaktere bat bakari erabiltzea zurlunearen erabilera adierazteko. Testua eztertsatzea, zuriunetik utzi gabe, itelirik ez erabiltzea.	
	Fakturaren zenbakia								Alfanumerikoa(20)	Faktura identifikatzen duen zenbakia. Komeni da: Fakturaren zenbakien zenbakiko karaktereak soilik erabiltzea. Eztertsen zuriunetik ez utzea (beraz, testua eztertsatzea edo egotea).	
	Faktura bidali den data:								Dataren formatua(10)	Faktura bidali den data.	(dd-mm-aaaa)
	Faktura bidali den ordua								Orduaren formatua(8)	Faktura bidali den ordua.	(hh:mm:ss)
	Faktura errazua								Alfanumerikoa(1)	Faktura errazua edo osoa denez zehazten duen identifikatzailea. Eredua hau hutsik utzi, gero, balioa «N»-a dela pentsatuko da, hau da, faktura osoa dela.	L5
	Faktura errazutaren ordezkio faktura								Alfanumerikoa(1)	Faktura faktura erraztu balen ordez egin denez zehazten duen identifikatzailea. Eredua hutsik utzen bada, balioa «N»-a dela pentsatuko da.	L6
									Alfanumerikoa(2)	Faktura zuzentzailearen nota identifikatzen duen kodea.	L7
	Faktura zuzentzailea								Alfanumerikoa(1)	Faktura zuzentzailea ordezkenezkoa edo aldean ziozkoa denez zehazten duen identifikatzailea.	L8
									Dezimalea(12,2)	Ordezkatutako fakturen zerga oinarria.	
									Dezimalea(12,2)	Ordezkatutako fakturen kuota jasanarazia.	
								Dezimalea(12,2)	Ordezkatutako fakturen balokidearen errekaratuaren kuota.		
								Alfanumerikoa(20)	Zuzendu edo ordeztu den fakturaren sail zenbakia.		
								Alfanumerikoa(20)	Zuzendu edo ordeztu den fakturaren zenbakia.		
Zuzendu edo ordeztutako fakturak								Dataren formatua(10)	Zuzendu edo ordeztutako faktura bidali den data.	(dd-mm-aaaa)	
Eragiketaren data								Dataren formatua(10)	Eragiketa egin den data. Faktura bidali den data ez bada.	(dd-mm-aaaa)	
Fakturaren deskribapena								Alfanumerikoa(250)	Eragiketen deskribapen orokorra.		
Fakturaren xehetasunak								Alfanumerikoa(250)	Fakturaren xehetasun lerroaren deskribapena.		
								Dezimalea(12,8)	Fakturaren lerroko kopurua.		



Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Fakura				Aleko zenbatak					Dezimale(12,8)	Fakura lerroko aleko prezioa, BEZ GABE.	
				Deskontua					Dezimale(12,8)	Fakura lerroko deskontuaren zenbatak (euroak)	
				Zenbatak, guztira					Dezimale(12,8)	Fakura lerroko guztirako zenbatak, BEZA BARNE.	
	Fakturaren zenbatak, guztira jasandak atxikipena								Dezimale(12,2)	Fakturaren guztirako zenbatak.	
	Kostuaren zerga oinarria								Dezimale(12,2)	Jasandako atxikipena.	
	Gakoa	Gakoa: BEZaren araubidea edo zerga ondorioak dituen eragiketa							Dezimale(12,2)	Kostuaren zerga oinarria (mala aurteratuak BEZ taldeak).	
									Alfanumerikoa(2)	BEZaren araubidea edo zerga ondorioak dituen eragiketa identifikatzen duen gakoa.	L9
									Alfanumerikoa(2)	Sabuespenaren arrazola.	L10
									Dezimale(12,2)	Sabuespen arrazolari dagokion zerga oinarri sabuesia (euroak).	
									Alfanumerikoa(2)	Sabuesia ez dagoen kargapeko eragiketa mota.	L11
								Dezimale(12,2)	Sabuesi gabeko zerga oinarria. Zerga oinarri zerga tasa aplikatzen zaio.		
								Dezimale(3,2)	Kuota kalkulatzeko zerga oinarriari aplikatutako enutekoa.		
								Dezimale(12,2)	Lasana razizko kuota. Zerga oinarri zerga tasa aplikatzearen emaitzako kuota.		
								Dezimale(3,2)	BEZaren tasaren arabera kuota.		
								Dezimale(12,2)	Zerga oinarriari baliokidetasun erretegiua aplikatzearen emaitzako kuota.		
								Alfanumerikoa(1)	Zergadunak faktura araubide eraztuan edo baliokidetasun erretegiaren araubidean egin duen zehazien duen identifikatzailea. Eremua hutsik uzten bada, balioa «N» dela pentsatuko da.	L12	
								Alfanumerikoa(2)	Kargapean ez egoteko arrazola.	L13	
								Dezimale(12,2)	Zergaren kargapean ez dagoen eragiketa zenbatak (euroak).		
								Alfanumerikoa(2)	Sabuespenaren arrazola.	L10	



Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formataua	Deskribapena	Balio posibleak	
Faktura	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Dezimala(12,2)	Zerga oinarriari balokidetasun errekaragua aplikatzearen emaitzako kuota.		
									Alfanumerikoa(1)	Zergadunak faktura araubide erraztuan edo balokidetasun errekarugaren araubidean egin duen zehazten duen identifikatzailea. Eremua hutsik uzten bada, balioa «N» dela pentsatuko da.	L12	
	Faktura	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Alfanumerikoa(2)	Kargapean ez egoteko arazola.	L13
										Dezimala(12,2)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak).	
		Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Alfanumerikoa(2)	Salbuespenaren arrazola.	L10
										Dezimala(12,2)	Salbuespen arrazolari dagokion zerga oinarri salbuesia (euroak).	
		Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Alfanumerikoa(2)	Salbuesia ez dagoen kargapeko eragiketaren mota.	L11
										Dezimala(12,2)	Salbuesi gabeko zerga oinarria. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatzen zailo.	
		Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Dezimala(3,2)	Kuota kalkulatzeko zerga oinarriari aplikatutako ehunekoak.	
										Dezimala(12,2)	Jasagarritako kuota. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatzearen emaitzako kuota.	
Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Dezimala(3,2)	BEZaren tasaren araberako ehunekoak.			
								Dezimala(12,2)	Zerga oinarriari balokidetasun errekaragua aplikatzearen emaitzako kuota.			
Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Alfanumerikoa(1)	Zergadunak faktura araubide erraztuan edo balokidetasun errekarugaren araubidean egin duen zehazten duen identifikatzailea. Eremua hutsik uzten bada, balioa «N» dela pentsatuko da.	L12		
								Alfanumerikoa(20)	Aurreko faktura identifikatzen duen salia.			
Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Alfanumerikoa(20)	Aurreko faktura identifikatzen duen zenbakia.			
								Dalaren formatua(10)	Aurreko faktura bidali den data.	(dd-mm-aaaa)		
Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Alfanumerikoa(100)	Aurreko fakturako TicketBAI fixategiko SignatureValue eremuko lehen ehun karaktereak.			
								Alfanumerikoa(20)	Zerga Administrazioak TicketBAI softwarearen erregistroan estaltutako alta inskripzioaren zenbakia.			
Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Kargapean ez dagoen eragiketa eragiketa xehetasunak (1 - 2)	Arazola	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	Zerparen kargapean ez dagoen eragiketaren zenbaterakoa (euroak)	IFZ formatua(9)	Pertsona edo erakunde garatzailearen IFZ. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.			



Garatzailea	Bestelako Ident.	Herritaldearen kodea				Alfanumerikoa(2)	Pertsona edo erakunde garatzaileari lotutako herritaldearen kodea. TicketEAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako data.	(ISO 3166-1 alpha-2 codes) L1
		Ident. mola				Alfanumerikoa(2)	Egotza dagoen herritaldeko identifikazio mola ezarzteko gakoa. TicketEAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako data.	L2
		Ident.				Alfanumerikoa(20)	Egotza dagoen herritaldeko identifikazio zenbakia. TicketEAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako data.	
	Izena					Alfanumerikoa(120)	TicketEAI softwarearen izena. TicketEAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako data.	
	Bertsioa					Alfanumerikoa(20)	Erabilirik TicketEAI softwarearen identifikazioa.	
	Gailuaren sail zenbakia					Alfanumerikoa(30)	Erabilirik fakturazio gailuaren sail zenbakia.	
Signature							Ikusi "TicketEAI fitxategien sinadura elektronikoen zehaztapenak" (III. eranskina)	



II. ZERRENDA MOTAKO EREMUETAN ERABIL DAITEZKEEN GAKOAK ETA BALIOAK.

L0 → TicketBai bertsioaren identifikatzailea.

Balioak	Deskribapena
1.2	Erabilitako eskemaren egungo bertsioa.

L1 → Herrialdearen kodea.

Informazioa indarrean dagoen herrialde eta lurraldeen kode zerrendaren arabera emango da.

L2 → Egoitza dagoen herrialdeko identifikazio motak.

Balioak	Deskribapena
02	IFK-BEZ.
03	Pasaportea.
04	Egoitza duen herrialdeak edo lurraldeak emandako identifikazio agiri ofiziala.
05	Bizileku ziurtagiria.
06	Beste frogagiri bat.

L3 → Zenbait hartzaile.

Balioak	Deskribapena
S	Bai.
N	Ez.

L4 → Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura.

Balioak	Deskribapena
N	Faktura igorleak berak egin du.
T	Faktura hirugarren batek egin du.
D	Faktura eragiketaren hartzaileak egin du.

L5 → Faktura erraztua.

Balioak	Deskribapena
S	Bai.
N	Ez.



L6 → Faktura erraztu baten ordezk egindako faktura.

Balioak	Deskribapena
S	Bai.
N	Ez.

L7 → Faktura zuzentzailearen kodea.

Balioak	Deskribapena
R1	Faktura zuzentzailea: Zuzenbidean oinarritutako akatsa eta BEZaren Legearen 80. artikulua lehen, bigarren eta seigarren puntuetakoa arrazoiak.
R2	Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Hiru artikulua.
R3	Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Lau artikulua.
R4	Faktura zuzentzailea: gainerakoak.
R5	Faktura erraztua zuzentzeko faktura.

L8 → Faktura zuzentzailearen mota.

Balioak	Deskribapena
S	Faktura zuzentzailea: ordezkpena.
I	Faktura zuzentzailea: diferentzia.

L9 → BEZaren araubide bereziaren eta zergetan eragina duten eragiketen gakoak.

Balioak	Deskribapena
01	Araubide orokorreko eragiketak eta ondoko gakoetan sartzen ez diren gainerako kasu guztiak.
02	Esportazioa.
03	Erabilitako ondasunen, arte gauzen, antzinako gauzen eta bildumako gauzen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak.
04	Inbertsio errearen araubide berezia.
05	Bidaia agentzien araubide berezia.
06	Entitate taldeen BEZaren araubide berezia (maila aurreratua).
07	Kutxa irizpidearen araubide berezia.
08	IPSI / IGIC (Ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zerga / Kanarietako zeharkako zerga orokorra) zergen kargapeko eragiketak.
09	Besteren izenean eta kontura ari diren bidaia agentziek egindako zerbitzuen fakturazioa (Fakturazioaren Araudia, 3. xedapen gehigarria).
10	Hirugarrenen kontura (bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura, alegia) lanbide ordainsariak, jabetza intelektual edo industrialaren edo egile jabetzaren ondoriozko eskubideak edo bestelako kobrantza, baldin eta kobratzaileak beren eginkizunen artean kobrantza egiten sozietate, elkarte, lanbide elkargo edo bestelako erakundeak badira.
11	Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak.
12	Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabeak.
13	Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu



	gabekoak.
14	BEZ sortu gabe duten fakturak, hartzailea administrazio publikoa den obra egiaztapenetan.
15	BEZ sortu gabe duen faktura, segidako traktuko eragiketetan.
17	XI. Kapitulu IX. tituluan (OSS eta IOSS) aurreikusitako erregimenetako bati atxikitako eragiketa
19	Nezakaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian (NAAAB) dauden jardueren eragiketak
51	Baliokidetasun errekaruaren araubideko eragiketak.
52	Araubide erraztuko eragiketak.
53	BEZaren ondorioetarako ez enpresari ez profesional ez diren pertsonen edo erakundeek egindako eragiketak.
54	Kanarietan, Ceutan eta Melillan kokatutako establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak

L10 → Zergapeko eragiketak salbuesteko arrazoiak.

Balioak	Deskribapena
E1	BEZaren Legearen 20. artikulua arabera salbuestita.
E2	BEZaren Legearen 21. artikulua arabera salbuestita.
E3	BEZaren Legearen 22. artikulua arabera salbuestita.
E4	BEZaren Legearen 23. eta 24. artikuluen arabera salbuestita.
E5	BEZaren Legearen 25. artikulua arabera salbuestita.
E6	Beste arrazoi batengatik salbuestita.

L11 → Salbuesti gabeko eragiketa.

Balioak	Deskribapena
S1	Subjektu pasiboaren inbertsiorik gabe.
S2	Subjektu pasiboaren inbertsioarekin.

L12 → Baliokidetasun errekaruaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa.

Balioak	Deskribapena
S	Bai.
N	Ez.

L13 → Kargapean ez egoteko arrazoiak.

Balioak	Deskribapena
OT	BEZaren Legearen 7. artikulua arabera. Kargapean ez dauden beste kasu batzuk.
RL	Lokalizazio arauen arabera.
VT	Ez subjektua, hirugarrenen kontura egindako salmentak (BEZaren eta PFEZaren



	ondorioetarako konputagarria ez den zenbatekoa)
IE	Lokalizazio-arauak direla-eta ZALen subjektua ez dena, baina atzerriko zerga, IPS/IGIC edo EBko beste estatu kide bateko BEZa eragiten duena



II. ERANSKINA: OSATU FITXATEGIAREN EGITURA ETA BALIOZTAPENAK
 I. ALTAKO MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK

Azalpena:	Gorria = Nahitaezko eremuak (nahitaezkoak direla ezartzeko, BIH sisteman zehaztutakoa hartu da kontuan)
	Beltza = Hautazko eremuak

Datuen blokea	Datua edo datu multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Golburua		Alfanumerikoa(5)	Erabilirik eskemaren bertsoaren identifikazioa	LO
IDFaktura		IFZFormatua(9)	Jaukitzailearen IFZ	
		FAKTURASERIEA	Faktura identifikatzen duen serie zenbakia. Erabili karaktere joko hau: 0123456789ABCDEFGHIJKLMNPQRSTUWXYZ. Salhestu J, O eta W letrak. irakurgarritasuna hobetzeko. Ez erabili letra xeharik. Zuriuneen kasuan, erabili karaktere bakarra. Doitu testua ezkerrean, zuriuneekin hasi gabe. Ez erabili tilderik. "-" gidoi ertaina erabili daiteke.	
		FAKTURAZENBAKIA	Faktura identifikatzen duen zenbakia. Faktura zenbakiak karaktere numerikoak baino ez ditu eduki behar. Ez da zuriuneekin hasi behar (beraz, ezkerrean doitu behar da testua)	
	FAKTURARENJAUUKIPENDATA	DataFormatua(10)	Fakturaren jaukipen data	(uuuu-hh-ee)



KanpokoErreferentzia	HigiezinarenXehetasuna	HIGIEZINARENKOKAPENA KATASTROERREFERENTZIA	Alfanumerikoa(60)	KanpokoErreferentzia Eduki libreko datu gehigarria, aplikazio bezero batzuek bidalia (kontabilitate idazpena, etab.).	L1
Higiezinak			Numerikoa(1)	Higiezina non dagoen zehazten duen identifikatzailea	
HigiezinEskualdeketa BEZariLotutakoZenbakekoa			Dezimala(12,2)	Higiezinak BEZari lotuta eskualdatzeagatik jasotako zenbakekoa	
OrdexkariarenIFZ			IFZrenFormatua(9)	Erregistro liburuaren titularraren ordexkariaren IFZ	
Kontrapartearen OrdexkariarenIFZ			IFZrenFormatua(9)	Eragiketaren hartzailearen edo kontrapartearen ordexkariaren IFZ	
FakturazioAordioaren ErregistroZenbakia			Alfanumerikoa(15)	Fakturazioaren edo erregistro liburuaren baimen zenbakia	
EntitateOinordetua	EntitatearenXehetasuna	IFZ	IFZrenFormatua(9)	Berregituratze eragiketa baten ondorioz oinordetutako entitatearen IFZ	
		DEITURAKIZENASOZLETATEIZENA	Alfanumerikoa(120)	Berregituratze eragiketa baten ondorioz oinordetutako entitatearen izena-sozietate izena	
Kupoa			Alfanumerikoa(1)	Kupoiak, hobariak edo deskontuak emateagatik, R1 edo R5 motako fakturan zerga oinarria murriztuta dagoen zehazten duen identifikatzailea, fakturaren jatorrizko alea baino jaulkitzen ez denean.	L2

OSATU
BesteDatuTri
tarioBatzuk



II. ZERRENDA MOTAKO EREMUETAN BAIMENDUTAKO GAKOAK ETA BALIOAK

L0 → IDBertsioa

Balioak	Deskribapena
1.0	Erabilitako eskemaren egungo bertsioa

L1 → HigiezinarenKokapena

Balioak	Deskribapena
1	Katastro erreferentzia duen higiezina, lurralde espainiarreko edozein tokitan kokatua, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan izan ezik
2	Katastro erreferentzia/zenbaki finkoa duen higiezina, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan kokatua
3	Aurreko egoeretako edozeinetan sartutako higiezina, katastro erreferentziarik eta zenbaki finkorik gabea.
4	Atzerrian kokatutako higiezina

L2 → Kupoia

Balioak	Deskribapena
S	BAI



III. ERANSKINA

OSATU ZERBITZUAREN BETEKIZUNAK, PROZEDURA ETA ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK ETA FUNTZIONALAK OSATU FITXATEGIA BIDALTZEKO

1. Xedea.

Agiri honetan ezartzen da TicketBAI alta fitxategien osagarria den fitxategiari dagokion informazio osagarria bidaltzeko prozedura, eta hala badagokio, Zuzendu fitxategiei dagokiena baita ere, horrela betetzeko BEZaren berehalako informazio hornidura.

Era berean, zehaztaperen tekniko eta funtzionalak ezartzen ditu, bai eta Osatu zerbitzuaren betekizunak ere, beharrezkoak direnak Arabako Foru Aldundiak Osatu fitxategiek dituzten mezuak jaso ditzan.

Informazioa denbora errealean hornitzeko REST zerbitzuak erabiliko dira.

2. Definizioak:

Foru Agindu honen eta bere eranskinen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

- Fitxategi nagusia: osatuko den TicketBAI edo Zuzendu fitxategia.
- Osatu fitxategia: Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez arretzeko arauak eta zehaztaperen teknikoak ezartzen dituen abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduaren igorritako fakturen erregistro liburuan zehaztutako eremuak jasotzen dituen fitxategia, TicketBAIren altaren fitxategian ez dagoena, eta bete egingo dira XXaren XX(e)ko XX/2022 Foru Aginduaren II. eranskinen egitura, edukia eta ezaugarriak eta Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoko formatua eta diseinua.
- Osatu Zerbitzua: Osatu fitxategiak jasotzen dituen zerbitzua.

3. Osatu zerbitzuaren funtzionamenduko eskema orokorra.

3.1. TicketBAI softwareaz aparteakoa.

Osatu fitxategiak sortzeko eta Osatu zerbitzuen bidez bidaltzeko funtzionaltasuna TicketBAI softwarearen zehaztaperenetatik kanpo geratzen da.

3.2. Mezuak bidaltzea.

Osatu fitxategiak baliabide elektronikoen bidez bidali behar dira, zehazki, XML



mezuen trukean oinarritutako REST zerbitzuen bidez. Mezu guztiei modu sinkronoan erantzuten zaie.

Mezu bat definituko da Osatu zerbitzuaren bidez fitxategiak bidaltzeko.

3.3. Baliozkotzeak.

Osatu fitxategiek Arabako Foru Aldundiaren web orrian une bakoitzean argitaratzen diren baliozkotze guztiak gainditu beharko dituzte. Baliozkotzeekin batera argitaratuko dira horietako bakoitzari dagozkion erroreen sailkapena eta errore horiei lotutako kodeak eta azalpenak, bai eta fitxategiak jasotzearekin zerikusia duten gainerako oharrak ere.

Baliozkotzeak bakarrik hartzeak izango dira eta modu sinkronoan egingo dira.

3.3.1. Jasotzeen baliozkotzeak.

Osatu fitxategiek jasotzeen baliozkotzeren bat gainditzeko ez badute, erantzunean "01 Ezetsia" agertuko da, eta errore motaren berri emango da.

Zergadunak, akatsak zuzendu eta gero, Osatu fitxategia berriro bidaliko du dagozkion zuzenketekin.

Ezetsitako Osatu fitxategiak ez dira erregistratuko Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

3.4. Erantzun mezuak.

Erantzuneko XMLn erantzunaren egoeraz gain, fitxategi nagusiaren TicketBAI kodearen berri emango da, baita ere XML fitxategia jaso den ordua. Erantzunean TicketBAI koderik ez badago, esan nahiko du Osatu fitxategian jasotako informazioarekin osatzen den fitxategi nagusiko TicketBAI kodea ezin izan dela zehaztu.

4. Osatu zerbitzua.

Osatu zerbitzuarekin posible izango da TicketBAI edo Zuzendu fitxategien bidez bidalitako informazioa osatzea, hala dagokionean datu hauek gehituz: Kanpoko erreferentzia, BEZari lotutako higiezinaren eskualdatzeengatik jasotako zenbatekoa, legezko ordezkariaren IFZ, kontrako aldeko ordezkariaren IFZ, fakturazio erabakiaren erregistro zenbakia, ordezkero erakundea eta kupoia.

Atxikipenari lotu gabeko negozio lokalen alokairuko higiezinaren datuen informazioa eman behar denean, higiezinaren datu hauek jakinarazi beharko dira: Higiezinaren egoera eta katastro erreferentzia.

Osatu fitxategian bidalitako informazioa aldatu nahi izanez gero, Osatu fitxategi oso berri bat bidali beharko da (azken bidalketan beti sartu beharko da BIH sisteman jaso behar den informazio guztia).



Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratuko da fitxategi horiek zehazki zer formatu eta diseinu izan behar duten.

5. Estandarrak eta betekizunak.

5.1 Sarrera.

Mezuaren edukia XML fitxategi bat da. XML fitxategiak egituretan zehazten diren erregelak bete behar ditu (formatuei, derrigortasunari eta abarrei buruzko arauak). Nolanahi ere, datuen koherentzia haien prestakuntzan eta aurkezpenean aritzen direnek bermatu behar dute.

Egitura bakoitza datu multzoetan dago antolatuta, eta multzo horietan datuen elementuak daude. Horiek bloke logikoak osatzeko moduan taldekatu dira, eta aldi berean, egitura bakoitzaren eremuarekiko koherentziari eutsiko zaio.

REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten softwareak ziurtagiri elektronikoen baten bidez egiaztatu beharko dira bezeroaren atalean, hala xedatzen baitu TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduaren IV. eranskineko 3.1 puntuak. Horrenbestez, Osatu zerbitzuak erabiltzeko, Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoen bat behar da. Ziurtagiria pertsona fisikoarena, erakundearen ordezkariarena, gailuarena, erakundearen zigilu elektronikoa, autonomoarena edo baimendutako beste edozein izan daiteke.

Osatu fitxategiak bidaltzeko zergadunaren ziurtagiria erabil daiteke edo, bestela, hauetako bat:

- Legezko ordezkariaren edo behar bezala baimendutako zergadunaren ziurtagiria.
- Zergadunak baimendutako gailuaren ziurtagiria, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduaren IV. eranskinean xedatutakoaren arabera.

5.2 Estandarrak.

RESTful web zerbitzuak webgunean APIak edo programazio interfazeak azaltzeko erabiltzen dira. Helburua da errendimendua, eskalagarritasuna eta malgutasuna ohiko web zerbitzuenak baino hobek izatea, bezeroei aukera emateko datuak eta baliabideak aurreikusteko moduko URLen bidez eskuratzeko. Horrela komunikatuko dira informazio sistemak elkarrekin (herritarrarena/enpresarena eta Foru Ogasunarena). RESTful zerbitzuak garatzeko de facto estandarrak erabiliko dira.

Osatu fitxategien egitura XML eskemetan oinarritzen da 2004ko urriaren 28ko W3C gomendioa erabilia, hemen dagoena <http://www.w3.org/TR/xmlschema-0> eta namespace honek erreferentziatzen duena <http://www.w3.org/2001/XMLSchema>

Zerbitzu bakoitzak sarrerako mezu bat eta irteerako erantzuna izango ditu definituta, zein bere XSD eskemaren bidez.



6. Osatu zerbitzuaren definizioa.

Zerbitzu honen bidez Osatu fitxategiak sartzea ahalbidetzen du.

6.1 Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.1 edo berriagoa). Bidaltzeko modua: POSTAK.

Mezuak: Rest Service.

Kodeketa: UTF-8. Sarrera XMLa da; jarraian azalduko den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitu behar da.

Osatu fitxategiak egitura hau izango du:

```
OSATU
urn:ticketbai:Os
atuEsquema XSD
Cabecera
IDFactura
OsatuOtrosDatosTributarios
ReferenciaExter
naInmuebles
ImporteTransmisionInmueblesSujetoAIVA
NIFRepresentante
NIFRepresentanteContraparte
NumRegistroAcuerdoFacturacion
EntidadSucedida
Cupon
```

Zerbitzuaren helbidea: <https://ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/Osatu/>

Beharrezko http burualdeak: content-Type: application/xml;charset=UTF-8.

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten aplikazioak ziurtagiri



elektroniko baten bidez egiaztatu beharko dira bezeroaren atalean. Horrenbestez, zerbitzuak erabiltzeko Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoko bat behar da.

Sinadura: sarrerako XML mezua ez da sinatuko.


6.2 Erantzuna.

Ingurunea: internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodeketa: UTF-8. Irteera XMLa da, UTF-8 kodeketa daukana. XMLa jarraian azalduko den XSD irteera eskemaren zehaztapenera egokitu behar da (ticketBaiResponse.xsd). TicketBAI fitxategiak jasotzeko zerbitzuaren erantzun fitxategiaren eskema bera da.



Sinadura: erantzun mezua ez da sinatzen.

6.3 Emaiza kodeak

Erantzunaren egoera elementuan ageri den egoeraren kode orokorrak honako bi balio hauek izan ditzake:

BALIOA	DESKRIBAPENA	ESANAHIA
00	Jasoa	Osatu fitxategia jaso da
01	Baztertua	Osatu fitxategiak akatsen bat dauka eta ezin da jaso.

7. BESTE OHAR BATZUK.



7.1 Erroreak eskaerak prozesatzean.

HTTP eskaera prozesatzean errorerik gertatzen bada, HTTP protokolo estandarrean azaltzen den bezala jakinarazi behar da.

Laburpen modura, eskaera bati erantzutean honako kasu hauek gerta daitezke:

Bezeroaren aldeko emaitza	Ekintza
Espero den XML formatua duen erantzuna jasotzen da.	Eskaera prozesatu egin da. Erantzuna aztertu behar da eragiketaren emaitza zehazteko.
Erantzuna jaso da eta formatua okerra da.	Errorea gertatu da eskaera prozesatzean. Eskaera berriz egin behar da.

7.2 Karaktere berezi batzuen ihes kodeak.

XML elementu batean beheko taulako karaktereak erabili behar izanez gero, ihes kodeak ezarri behar zaizkie:

Karakterea	Ihes karakterea
&	&
<	<
>	>